

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BILARKO UDALA

**Bilarko Udaltzaren Erabakia, 2021eko uztailaren 2koa, euskara ikasteko laguntzen deialdia egiten duena 2020-2021 ikasturterako**

DDBN(Identif.): 580855

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/580855>).

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

Bilarko udalerrian erroldatuta dauden pertsona fisiko guztiak, honako baldintza hauek betez gero:

- Bilarko udalerrian erroldatuta egotea, gutxienez urtebetez jarraian, diruz lagundu daitekeen ikastaroa hasi baino lehen.
- 16 urte baino gehiago edukitzea.
- Deialdiaren lehen oinarrian zehazten diren ikastaro modalitateetako batean matrikulatuta egotea euskara irakasten den zentro batean.
- Deialdiaren laugarren oinarrian zehazten diren baldintzak betetzea.

Ezingo dira onuradun izan azaroaren 17ko 38/2007 Lege Orokorra (Dirulaguntzen Lege Orokorra) 13. artikuluan zehazten dituen egoeretako batean dauden pertsona fisiko edo entitateak.

Ezin dira onuradun izan laguntza jasotzeko konputatzen den aldia hasten denean nahitaez eskolaratu beharreko adina duten pertsona fisikoak, eskolaratuta egon zein ez egon.

Dirulaguntzen onuradun izateko baldintza orokorrak bete beharko dira, bai eta, gutxienez, diruz lagunduko den ikastaroan emandako eskola orduen ehuneko 75era joan izana ere, deialdiko beste puntuetan adierazitakoez gain.

#### **Bigarrena. Xedea**

Herritarrek hizkuntza horren ezagutza eta erabilera areagotuz euskara normaliza dadin, euskara ikasteak sortutako gastuak ordaintzeko laguntzak.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Dirulaguntzak honako hauetan ezarritakoaren arabera arautuko dira: deialdi hau; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; Dirulaguntzei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra, uztailaren 21eko 886/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Dirulaguntzen Datu Base Nazionala eta dirulaguntzen eta gainerako laguntza publikoen publizitatea arautzen dituen martxoaren 8ko 130/2019 Errege Dekretua; Bilarko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra (2020ko urtarrilaren 13ko ALHAO, 4 zenbakia); Euskararen arloko dirulaguntzak emateko ordenantza espezifiko (2020ko urtarrilaren 22ko ALHAO, 8 zenbakia).

**Laugarrena. Zenbatekoa**

Deialdi honetan ematen diren dirulaguntzen guztirako zenbatekoa ezin da izan aurrekontuan ezarritakoa baino gehiago.

Zenbateko hori nahikoa izan ezean aurkeztutako eskariei aurre egiteko, laguntzak modu proportzionalan hainbanatuko dira, gehieneko kopurura heldu arte, salbu eta aurrekontu partida hori beste partida batzuetako gastu txikien kontura handitu ahal denean.

Gastua 335.480001 partidaren kargura egotziko da. Partida horrek 500,00 euroko kreditua du Bilarko Udalaren aurrekontu orokorrean.

Salbuespen gisa, deialdiak, kreditu erabilgarrien barruko gehieneko zenbateko osoaz gain, zenbateko gehigarri bat ere finkatu ahal izango du, eta dirulaguntzak emateko ez da beste deialdi bat egin beharko.

Zenbateko gehigarri hori zehazteko eta erabiltzeko, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduko 72. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

**Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea**

Eskatzaileek 15 egun naturaleko epea izango dute, deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eskaerak Bilarreko Udalaren bulegoetan (Santa Maria plaza 14, 01309 Bilar, Araba) edo Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean zehaztutako moduan aurkezteko.

**Seigarrena. Beste datu batzuk**

Ikastetxe homologatuetan egiten diren ikastaroak soilik onartuko dira dirulaguntzarako.

Dirulaguntzaren zenbatekoak ezingo du gainditu deialdi honetan aurkeztutako ikastaroaren matrikularen ehuneko 80.

Bilarreko Udalean honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da, eta eskatzaileek honela egiaztatu beharko dute:

- Euskaltegiaren ziurtagiria, jatorrizkoa, ikastaroaren berri ematen duena: Ikaslearen identifikazio datuak, matrikulatutako ikastaroaren kostua, barnetegia edo ikastaro trinkoa izanez gero, irakaskuntza, mantenu eta ostatu gastuak eta ikasleak ikastaroan izandako asistentzia maila, emandako orduen eta ikasleak parte hartu duen orduen arteko portzentajea adierazita.
- 2020-2021eko ikasturtea ordaindu dela frogatzen duen bankuko ziurtagiria (edo ordainketen ziurtagiriak, zatika ordaintzea hautatu bada).

Bilar, 2021eko abuztuaren 26a

*Alkatea*

*ENRIQUE PÉREZ MAZO*